

Ezinduen lekuan jarriz

Sentsibilizazio
eguna egin
dute LHko
ikasleek ▶ 5



Harpidedunei banatua ▶ Larunbata ▶ 2006-05-20 ▶ IV. urtea ▶ 890. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

VI. Txirrita Mendi Ibilaldia, Aralarko gailurretatik

ABALTZISKETA ▶

Abaltzegieta, harremanak estutzeko

TOLOSA ▶ Oargi Mendi Elkarteak antolatu du; Amezketatik abiatuko dira bihar, 06:00etatik aurrera

IRAUPENA ▶ Hamabi bat orduko ibilaldia da, eta Aralarko gailur gehienak igotzen dira bidean ▶ 3

Abaltzisketako eta Ikaztegiako eskolen proiektu berria ▶ 5

Alurr, dantzaren bidez herriak lotuz

IBARRA ▶ Saran aritu berri da taldea; dantza baliatuz bertako kultura barreiatu nahi du ▶ 6

LEITZA ▶

Bihar ekingo diote Kultur Asteari, umeentzako ekintzekin

Motzagoa izanen da aurten, baina hilaren 28ra arte agenda beterik da ▶ 7

HITZA



TOLOSALDEA
GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA

- Lanbide Heziketako Ikerketa eta Berrikuntzarako Institutua
- 2001ean, Eusko Jaularitzako Zilarrezko "Q" saria
- 6 urtez, ISO 9002 ziurtagiriarekin

Erdi-mailako zikloak: Euskaraz

- Mekanizazioa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoa

IZEN EMATEAK / AURREMATRIKULA:
EKAINAREN 1etik 7ra



Tfno.: 943 65 11 47 / 943 65 06 64
Fax: 943 65 18 56
idazkaritza@tolosaldea.com
www.tolosaldea.com
Santa Luzia, 17 • 20400 TOLOSA



TOLOSALDEA ▶

Saharako haurrak etxean hartzeko aukera



Kanpaina, martxan ▶ 2

Haurrak, eskolan. HITZA

ZIZURKIL ▶

Alann Bique taldearekin, gau zeltiarra izango da gaurkoa

Bihar, 8. Biatloia ▶ 4

GIZARTEA ▶

NOELIA LATABURU

Saharako haurrak udako bi hilabeteetan etxean hartzeko kanpaina martxan jarri dute dagoeneko. Hala, uztaile eta abuztua bitarte 7 eta 12 urte arteko haurtxoak artatzeko interesa duten guztiek lehenbailehen jo behar dute Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako sailera —943 69 74 60 telefono zenbakian—, edo Sahara Bizi Tolosaldea Sahararekin elkartera —645 71 07 89 zenbakian—. Ekainaren 2an itxiko dute izena emateko epea.

«Ahaztuko ez dituzten eta ahaztuko ez ditugun bi hilabete izango dira». Halaxe definitzen dute ekimenaren bultzatzaileek esperientzia. Familia askok egin dute bat, azken hamar urteetan, ideia honekin, eta oraindik beste hainbat izatea espero dute. Familiak pertsona bakarrekokoak, seme-alabekin, seme-alabarik gabekoak eta jubiltuak izan daitezke. Iaz, esate baterako, hamairu umek izan zuten bertako familietara hurbiltzeko aukera.

Udalak bidaiako gastuak ordaintzen ditu eta pertsona bat kontratatzen du koordinazio lanak egiteko, azterketa medikuetan eta gaztetxoak hartzen dituzten familikoekin harremanetan egoteko eta sor daitezkeen gai erantzuteko. Baina, «ezinbestekoa» haurrak hartzeko prest dauden familiak dira gogoratu dute.

Egoera gero eta larriagoa

Programak helburu zehatzak ditu; batetik, haurrak tenperatura altuetatik eta begi, hortz, eztarri eta belarrietan kalte egiten dieten hare ekaitzetatik ateratzea, eta osasun arazoak sendatzeko azterketa medikoak egitea; halaber, nutrizio akatsai aurre egitea. Bi herrien arteko harremanak mantentzea eta sakontzea ere nahi dute eta familien arteko adiskidetasuna eta kooperazioa sendotzea. Eta, nola ez, haien egoeraz jabetzea du xede, gobernuen aurrean presionatuz erantzukizuna haien gain har dezaten eta NBEk dekretatutako eta orain egin nahi ez den erreferenduma eskatzeko.

Jazotako azken hondamenak medio, saharar hauen

Saharako haurrak uztailean eta abuztuan etxean hartzeko kanpaina abiarazi dute jada

Interesatuak ekainaren 2a baino lehen eman behar dute izena; helburuak haurren osasun arazoetan laguntzea eta haien egoeraz jabetzea dira batik bat



Ekitaldi ugari antolatzen dituzte haurtxoek oporraldi bikaina igaro dezaten; argazkian, iaz eginiko bat. i. t.

BALDINTZAK

Pertsona bakarrak, seme-alabak dituzten bikoteek, seme-alabarik gabekoak ala jubilatuek har ditzakete haurrak

kanpamenduetako egoera inoiz baino larriagoa da; hori dela eta, laguntza beharrezkoa dute. Haatik, sufrimendua aspalditik datorkie. 1975ean Madril egindako akordioa eta gero, *Ibilaldi berdea* deritzona hasi zen eta jarraian Marokoren eta Mauritaniaren inbasio militarra. Ondorioz, Saharako herritar zibilek ihesari ekin zioten, hegazkin marokoarrek Napalm erabili zutelarik sahararre irasotzeko. Gauza horiek guztiak nazioartearen onepinarekin gertatzen direla eta, hein batean bada ere, familien laguntza eskatzen du elkarteak.

Hamar urte, udaz uda, gure artean

Aurtengo uztailean hamar urte beteko ditu Saharako haurrak udako bi hilabeteetan etxean hartzeko programak. 1996a gerotik, beraz, haur sahararrek aldi batez behintzat gure kultura, ohiturak eta bizimodua ezagutzeko aukera dute, bai eta haien bizilekuan dituzten gabeziez gozatzeko ere.

Izan ere, programa honen bitartez, eskualdeko familia guztiei Tindufeko errefuxiatu sahararren kanpamenduetan bizi diren 7 eta 12 urte bitarteko neska-mutilak hartzeko aukera eskaintzen zaie, «etxeko



Tindufeko desertuan saharar emakume bat semearekin. i. t.

bat gehiago bezala», uztaile eta abuztua bitarte. Ekimena Saharar Herriaren Adiskideen elkarteek eta herrietako udalek gauzatzen dute, Euskal Autonomia Erkidegoan sahararrek dituzten ordezkaritza lankidetzarekin batera.

Dagoeneko ehunka familiek hartu dute parte Saharako haurtxoak hartzeko ekimen honetan. Eta damutu ere ez dira damutzen. Bizipenez beteriko bi hilabete izan ohi dira eta abuztu amaieran malako artean agurtzen dituzte jada haien familiaren parte diren haurtxoak.

Ondoren, urtez urte asko dira azkenekoz artatutako ume berdinak hartzen saiatzen diren familiak. Halaber, urte guztian zehar Sahara Bizi Tolosaldea Sahararekin elkarrekin Tindufeko kanpamentura antolatzen dituen bidaietan ere bertara bisita egiten saiatzen dira edota dirua, arropak eta bestelako laguntzak bidaltzen dituzte haien umeen bizimodua hobetzeko ahaleginean.

Hamar urte dira eta beste asko izateko lanean jarraituko du elkarteak, haurtxo hauen onurarako, beti ere. ◀

iragarki laburrak ▶

LANPOSTUAK

Gidariak. Udaletan eta Eusko Jaurilaritza laster lanpostuak B1, BTP eta C1. 943 31 37 82.

Garbitzaileak. Lanpostu libreak: Eusko Jaurilaritza, ikastetxeak, ospitaleak. Informazioa 943 31 37 82.

Mantenimendu Ofiziala. Ospital, egoitza eta udaltxerako. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Gipuzkoako Foru Aldundiak behar ditu: sukaldari laguntzaileak, obra zaintzaileak, gidariak, zaintzaileak, basozainak, laborategi teknikariak,

garbitzaileak. 943 31 37 82.
Osakidetza. Lanpostu libreak. Teknikariak, alborategi laguntzaileak, erizain laguntzaileak, zeladoreak. Informazioa doan. 943 31 37 82.
Langileak. Igeltseroak, elektrizistak, iturginak, lorezainak, palistak,

gidariak. Udaletxeetarako lanpostu libreak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Administrari laguntzaileak. Beasain, Bergara, Soraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro eta Anoetako udalek administrari laguntzaile

lanpostuak bete behar dituzte. Informazioa doan. 943 31 37 82.
Aireportuak. Lanpostuak betetzeko: bezeroari arreta, aireko kontrolatzaileak, suhiltzaileak, mantentze-lanak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

HEZKUNTZA ▶


Ekintzailearen eguna egin dute Tolosaldeko zenbait ikastetxek

E. Ezeiza ▶ Gipuzkoa Ekintzailearen estrategiaren barruan, Foru Aldundiak bultzatuta, lehenengo aldiz, Ekintzailearen Eguna egin zuten atzo Laskorain ikastolan eta Tolosaldea LH Institutuan. Honekin, enpresa sortzailearen ezaugarriak bultzatu nahi dute. Honen harira, Laskorainen ateratako lehen argazkian ageri den bezala, flash

bidezko animazio bat ikusi zuten bi ikastetxeetan, ekintzaile izatearen inguruko galderak erantzuteko. Bestetik, Tolosaldea LHko irudian (eskuinean) nabarmentzen den bezala, goizeko lehen orduetik, eraikuntzaren sarreran erakustoki bat kokatu zuten, apropos egun honetarako egin diren hainbat materialez hornituta. **HITZA**

KIROLA ▶

Hamabi orduko ibilaldia, Aralarko gailurretatik barna

Amezketatik abiatuta, VI. Txirrita Mendi Ibilaldia izango da bihar, Oargi Mendi Elkarteak antolatuta

ESTI EZEIZA

Bihar, Oargi Mendi Elkarteak antolatuta, VI. Txirrita Mendi Ibilaldia egingo dute, Aralarko gailurretatik barna. Ibilaldia iraupena hamabi ordukoa izango da gutxi gorabehera, eta Igaratzako kontrola 15:00ak aldera itxiko dute. Ibili hau Bosgarren Euskal Herriko iraupen luzeko ibiltarien zirkuitorako balogarrirako izango da.

Martxari Amezketako Bixente aterpean (Aierbenea etxean) emango diote hasiera, 06:00etan. Irteeran, partaide bakoitzari txartel bana emango zaio,

eta ibilbidearen amaieran txartela kontrolen zigilu guztiekin jarrita erakusten dutenei diploma eta kamiseta emango diete. Mendizaleak izena emateko orden berean irteango dira.

Parte hartzeko ezinbestekoa da Euskal Herriko Mendi Federazioko aurtengo asegurotxartela edukitzea. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, izena emateko 18 urte beteta izan behar dira. Honez gain, parte-hartzaileen prestaketa faltagatik edo antolatzaileekin zerikusirik ez duen beste arrazoiren batengatik istripuren bat gertatuz gero, antolatzaileek ez

dute erantzukizunik izango. Bestetik, mendizale bakoitzak bere ezaugarri fisikoen arabera zer janari eta arropa beharrezkoak dituen jakin beharko du, eta horiekin bere motxila bete. Motxila barruan zer eraman behar den mendizaletasunaren oinarriko ezagupen bat da, hau dela-eta elkarte antolatzaileak ibilbidean zehar ez ditu janariak banatuko.

Oargi Mendi Elkarteak ohartarazi du mendizaleek zaborrrak jaitsi beharko dituztela; hala, Amezketako Bixente ostatu ondoan zaborrak uzteko kontenedorea izango da.

ZENBAIT DATU ▶
IZEN-EMATEA


▶ Elkartean bertan.
 ▶ 943 67 56 12an,
 20:00etatik 21:00etara
 ▶ e-mailez:
 oargi@telefonica.net.
 ▶ 10 euro ordaindu beharko dira: elkartean edo Euskadiko Kutxako 3035 0156 87 1580007409 zenbakian egin daiteke ordainketa.

Ibilbidea. Amezketako, San Martin, Indikadorea, C. Zabalegi, Artubi, Oakoarria, Beoain, Aldaon, Intzeko dorrea, Unagako putzua, Tutture, Beloki, Pagomari, Putterri, Igaratza, Pardarri, Ganbo, Ganbo txiki, Txindoki, Amezketako.

Kontrol-guneak. Amezketako, Artubi, Aldaon, Intzeko dorrea, Tutture, Beloki, Putterri, Igaratza, Pardarri, Ganbo, Ganbo Txiki, Txindoki eta Amezketako.

IBILALDIA

Luzera. 45 kilometro.
Denbora. 12 ordu.



Puntu hauetatik igaroko da VI. Txirrita Mendi Ibilaldia. **HITZA**

iragarki laburrak ▶
SALGAI

Behorra. Gainean ibiltzeko behorra saltzen dut. 609 44 25 09.
Pisua. Leitzan 100m²-ko pisua salgai, igogailua eta trasteroerakin. Eguzkitsua. 699 46 13 65.
Autoa. Renault Kangoo RXE DTI. 2000. urtekoa. 88.000 kilometro. Estrak ditu. 943 69 71 94.

BESTERIK

Frantseseko klaseak. Frantseseko klaseak hartuko nituzke. 620 52 94 98.

LANA

Mutila. Mutila behar da ekainean lan egiteko. Deitu astelehenean aurrera, 09:30etatik 13:00etara

bitartean, 648 00 47 98 telefono zenbakira.

Banatzaila. Gidabaimena duen mutila behar dugu banaketa lanak egiteko, ostiraletan egun osoz eta larunbat eta igandeetan goizez aritzeko. Deitu astelehenean aurrera, 09:30etatik 13:00etara, 648 00 47 98ra.

Betin
jatekoa

Garaian
garaiko janariak
Arraikiatan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Errementeri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

ZIZURKIL ▶ MAIATZA SALTSAN

Gau zeltiarra eta biatloia, astebururako Maiatza Saltsan-en

Alann Bique taldeak musika eta antzerkia eskainiko du bihar; Zizurkilgo 8. Biatloia antolatu dute etzi goizerako



Alann Bique taldeak eskainitako kontzertu baten irudia. HITZA

IMANOL GARCIA

Maiatza Saltsan egitarauaren baitan, bi ekitaldi interesgarri izango dira asteburu honetan. Alde batetik, bihar ikuskizun berezia eskainiko du Alann Bi-

que talde galiziarrek. Intxaur frontoian izango da, 22:30etik aurrera, eta sarrera doan izango da. Bestea, Zizurkilgo 8. Biatloia da. Igandean izango da hitzordua eta 09:45ean hasiko dira probak.

Noite Meiga (Sorginen Gaua) ikuskizuna eskainiko du Alann Bique taldeak. Bertan musika zeltiarra eta antzerkia uztartuko dituzte. Gau zeltiarra musikarekin hasiko da. Ordubete inguruko kontzertua eskainiko

du talde galiziarrek. Doinu zeltiarrak izango dira nagusi, baina gaitekin beste musika mota-tako abesti batzuk ere joko dituzte. Abesti batzuetan kontatzen diren istorioen antzezpena ere egingo dute.

Kontzertuaren ondoren tradizio galiziarra eskainiko dute: queimada. Izpiritu txarrak uxatzeko erabiltzen den usadioarekin lotuta dago queimada. Bertan prestatuko dute taldekideek eta araoak egiteko ikus-entzuleen laguntza eskatuko dute. Bukaeran queimada dastatzeko aukera ere izango dute Intxaur frontoira joaten direnek. Adin guztietako jendearentzat zuzenduta dago ikuskizuna.

8. Biatloia

Gau zeltiarraren ondoren, hurrengo egunean, Zizurkilgo 8. Biatloia egingo dute. Aurtengoa ez da helduen maila izango, eta, beraz, hiru talde hauek antolatu dituzte: 7-9 urte bitartekoak, 10-12 urte bitartekoak eta 13-15 urte bitartekoak.

Gaztetxoek egin beharrekoa, honakoa: elizari bi itzuli korrika, elizari bost itzuli bizikletan eta, bukatzeko, beste bi itzuli korrikan. Erdikoek, 500 metro korrika, bi kilometro bizikletan eta beste 500 metro korrika egin beharko dituzte. Zaharrenek, berriz, 2 kilometro korrika, 8 kilometro bizikletan eta bi kilometro korrika egin beharko dituzte. Azken talde honetan parte-hartzaileak bikoteka aritu beharko dute. Guztiek kaskoa beharrezkoa izango dute. Antolatzaileek hitzetan, «herritarren parte hartzea indartu nahi dugu. Horretarako, alde ludikoa indartzuz, ezaguri konpetitiboak gutxitu nahi izan ditugu». Kamisetak, gozokiak eta hamaiketakoak denentzat izango dira.

VILLABONA ▶

Ertzaintzaren presentzia salatu dute Onddokoek

Azken bi asteburutan Gaztetxean izan direla azaldu dute Gazte Asanbladakoek

ERREDAKZIOA

Onddo Gazte Asanbladak Ertzaintza azken bi asteburutan Gaztetxean agertu dela salatu du. Dirudienez, bizilagunen kezua medio azaldu dira. «Harritzekoa da bi urtean kexatu ez diren bizilagun guztiak kexatzen hastea Udalak hilaren 31rako Gaztetxea hustu beharko zela agindu zuenetik», adierazi dute Onddokoek. Hauen ustez, «desalajoarekin zerkusua duten presioak dira» Ertzaintzaren agerpenak. Honen aurrean, dei egiten dute gaur Villabonan burutuko den Gazte Egunean parte hartzera.

Hilaren 6an izan zen Ertzaintza azaldu zen lehenengo aldia. «Kontzertua bukatu ondoren Gaztetxeko minikadana jarri zen martxan», azaldu dute. «Goizaldeko ordubatean zazpi patruila armatuta agertu ziren Gaztetxearen kanpoan. Kanpotik entzun ere egiten ez zen musika apur bat baxuago jartzeko esan zuen bizilagun bat kexatu egin zelako». Aurreko larunbatean beste kontzertu bat izan zen. Ertzaintza 12:20ak aldera iritsi zen, Onddokoekin arabera. «Kontzertua bukatu edo bolumen laurdenera jo beharko zela agindu zuten».

TOLOSAKO INMAKULADA IKASTETXEA

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Erizaintzaren Laguntza.
- Farmazia.

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Diagnosi Irudiak.
- Osasun Dokumentazioa.
- Gizarte Integrazioa.

AURREMATRIKULA: MAIATZA

Kondeko Aldapa, 5-B 20400 TOLOSA
Tel.: 943-673629 www.inmakuladatolosa.com

VILLABONA ▶ GAZTERIA



Xiba proba egin dute Herri Olinpiadetan

Erredakzioa ▶ Onddo Gazte Asanbladak antolatutako I. Herri Olinpiaden beste proba bat egin zuten aurreko asteburuan. Xiba izenekoa, hain zuzen. Herri kirolekin lotutako hainbat joko egin zituzten, argazkian ikusten den gorpilarena, kasu. Oraindik beste proba batzuk fala dira, baina horretarako datorren asteburura arte itxaron beharko da, gaur Gazte Eguna egingo baitute. HITZA

ABALTZISKETA ▶ HEZKUNTZA

Abaltzegieta, harremanak estutzeko

Ikaztegietako haurrekin jai bat egin zuten, proiektu berriari itxura emanez

NEREA URBIZU

2 eta 8 urte bitartekoek egun polita igaro zuten lehengo astelehenean, Abaltzisketako Txalburu eskolan, Ikaztegieta-ko umeekin batera.

Abaltzegieta izeneko proiektuaren barneko ekitaldia izan da honakoa, eta honetan datza: Ikaztegieta-ko eta Abaltzisketako eskolaren artean harreman berezia sortu dute, haurren arteko harremana bultzatzeko asmoz, eta hizkuntza lantzeko

helburuarekin. Lehenengo urtea izan da harremanak dituztena, eta erantzuna ona izan dela ikusi dute. Beraz, hurrengo urtean ere egingo dutela espero dute.

Abaltzisketako haurrek antzerkiak eta dantzak eskaini zizkieten bisitariei, gogotsu entseatu zutela erakutsiz. Ondoren, Larraitzen bazkaldu zuten, parkean jolastu ondoren. Etxera buelta 16:00etan egin zuten, hurrengo batean berriro elkar-teketo gogoz.

ALEGIA ▶ HEZKUNTZA



Sentsibilizazio eguna ezinduen egunarekin lotuz

N. Urbizu ▶ Alegiako Lehen Hezkuntzako ikasleek gorputzean gabeziak izango balituzte bezala praktikatu zuten kirola atzo. Kirol Egokituen Federazioak aulkia eta material berezia eraman zituen pilotalekura, eta itsuek, mutuek eta elbarriek jolasten duten moduan pasatu zuten goiza. Arratsaldean, herriko bi lagun gonbidatu zituzten hitzaldia eskaintzeko, sentsibilizazioa areagotzeko asmoz: bata, poliomeilitis jasandakoa eta bestea lan-istripu baten ondorioz hanka galdu zuena. **N. URBIZU**

BEDAIO ▶ GIZARTEA

Jubilatuen Eguna egingo dute bihar

Meza ondoren hitzaldia denontzat egongo da

N. URBIZU

Bihar, Bedaion, Jubilatuen Eguna egingo dute. 10:00etatik aurrera hasiko da egun berezia: hain zuzen ere, meza izango da ordu horretan.

Segidan, Artubi elkartearen hamaiketako egingo dute, eta Amaia Diaz de Monasterioguren dietistak hitzaldi bat eskai-

niko du. Honetara edozein joan daiteke, nahiz eta jubilatuen eguna izan. Bertan, osasuna, elikadura egoki batekin, egotzera onean mantentzeko argibide batzuk emango ditu.

14:00ak aldera bazkaria izango da, ohiko lekuan. Jubilatuek goza dezaten, egun ederra igarotzeko aukera luzatu egin diete, beste behin.

PILOTA ▶

HITZA Pilota Txapelketako partiden emaitzak

N. URBIZU

HITZA Pilota Txapelketan, kade-teen Bidanian jokatu dituzten partiden emaitzak hauek dira: Urrutiak 18, Otegiak 16 (Zazpi-Iturri). Antiak 2 Urteagak 18. Goienetxek 18 Jauregik 13. Ravinak 18, Irazustak 8. Beotibarren, jubilenen mai-

lan, Azpiri-Landaburu bikoteak 10, Ropon-Legarreta amezketarrak 22. Alonso-Mendia 14, Ezkurdia-Bergera 22.

Etorkizuneko mailan, Zelaia-Ugartemendia 10 (Zazpi-Iturrikoak), Pikabea-Mitxelena 22, eta, azkenik, Azpiazu-Azpiazu bikotea 22, U. Arraztoa-Mendinueta 8.

IBARRA ▶

Abian da jaien egitaraurako marrazki lehiaketa

Ibarran bizi edo ikasten dutenek eman ahalko dute izena, ekainaren 19a arte

I. TERRADILLOS

Abian da San Bartolome jaietako haur bozeto-lehiaketa. Ekimen honen helburua, aurkeztutako marrazkien artean 2006ko jaien egitaraurako marrazkiak aukeratzeko da. Bertan lanak aurkeztu ahal izango dituzte Ibarran bizi edota ikasten duten haur guztiak.

Gaia librea izan arren, lehiaketaren helburua zein den kontuan harturik, marrazkiek helburu horrekin zerikusia izan beharko dute. Lanak elaborazio teknika librez eginik aurkeztuko dira, eta marrazkien formatoa folio-neurrikoa eta antolakera bertikala duena beharko du izan. Aurkeztutako lanek *San Bartolome Jaiak 2006* adierazpena eta Ibarrako armarrria (edota berau jartzeko lekua) eduki beharko dituzte derrigorrez.

Lanak egilearen izenik edota adierazpenik ez dute izango, eta gutun-azal itxi batean aurkeztu beharko dira, ekainaren 19a baino lehen Benito Izagirre kultur etxean; gutun-azalean, egilearen izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia, jaiotze data, ikastetxea eta ikasurterteko datuak adierazi beharko dira.

Lanak baloratu eta irabazlea aukeratzeko epaimahaia ondorengoek osatuko dute: Ibarrako Uzturpe ikastolaren zuzendariak eta Kultura eta Euskara batzordeburuek. Epaia ekainean jakinaraziko dutela adierazi dute.

IBARRA ▶ KULTURA

Dantza, Ibarra eta iparra batzeko aitzaki

Saran emanaldia eskaini berri du Alurrek; dantzaren bidez bertako kultura barreiatzeko helburua du Ibarrako taldeak

IÑIGO TERRADILLOS

Bartzelonako saioaren ostean, Iparraldeko dantza taldeen-gandik jasotako gonbita aintzat hartuta, iragan asteburuan Saran aritu ziren Ibarrako Alurr dantza taldeko kideak. Izan ere, herri horretan, urtero, Herri Urrats-en bezperan festa berezia antolatzen dute, eta bertan parte hartu zuten ibarretarak. Dantza berriak, hau da, tradizionaletatik gehien urruntzen direnak eskani zituzten eta jendea «oso gustura» geratu zen ikusitakoarekin.

Ezpeletan aritu zirenetik harreman sendoa egin du Iparraldeko dantza taldeekin Alurrek, eta luzaroan hala jarraitzeko asmoa du, «oso aberasgarria baita guztiok ikasten dugulako elkartrukaketa honetatik».

Hurrengo emanaldiak

Euren dantzak herrian bertan erakustez gain, Ibarrako dantza taldearen helburua inguruko herrietan ere aritzea da. Ekainean, esaterako, bost saio eskainiko dituzte; ekainaren 3an Ibarrako Uzturpe ikastolan, ekainaren 4an Beasainen, ekainaren 5ean Izaskunen, ekainaren 18an Anoetan, ekainaren 25ean Tolosan eta ekainaren 29an Altzon. Abuztuan ere jarraituko dute lanean, eta Ibarran —atzetik datozenak ere dantzatuko dutelako berezia izango da— eta Berastegin, besteak beste, erakutsiko dituzte euren dantzak. Bestalde, inguruan aritzeaz gain, bertako kultura dantzaren bidez munduan zehar zabaltzeko asmoa ere badu Alurrek.



Ikusmin handia sortu zuten Saran. Irudian, *Banako*. HITZA



Fandango Arratia eskaini zuteneko une bat. HITZA

ELDUAIN ▶

Hainbat ekitaldi antolatu dituzte gaur eta bihar

San Isidro Egunaren harira hainbat ekitaldi antolatu dituzte asteburuan. Gaur, 22:00etan, *Aupa Etxebeste* filma ikusteko aukera izango da, eta bihar, berriz, Gaixoen Eguna izaki, Elduaingo Parrokiak antolatuta, 12:30ean Meza Nagusia izango da Santa katalina elizan, eta 14:00etan, bazkaria Urdelar Biltokian.

IBARRA ▶

Ingrid Buchwald ibartarraren lanak ikusgai

Ingrid Buchwald ibartarrak Benito Izagirre kultur etxean bere azken lanen erakusketa jarriko du hilaren 22tik 26ra. Bi formato desberdinetan eginikoak ikusteko aukera izango da, ohol gainean eginiko pintura eta animazio digitala, hain zuzen.

LEABURU-TXARAMA ▶

Urkiolara, San Antoniora, irteera antolatu dute

Leaburu-Txaramako Udalak eta Uli Mankomunitateak Urkiolako San Antonio erromeriarira irteera antolatu dute ekainaren 13an. Bazkaria eta guzti, 23 euro ordaindu beharko da izena emateko, eta Leaburuko udaletxean egin ahal izango da hilaren 22an eta 23an, 09:00etatik 12:00etara. Informazio gehiagorako Uli Mankomunitatera hots egin beharko da, 943 68 22 28 telefono zenbakira.

GAZTELU ▶

Edorta Muruaren margolanak ostatuan ikusgai

Hil honen amaierara arte Gazteluko Ostatuan, ostiraletik igandera, ikusgai izango dira Edorta Muruaren margolanak. Donostiar margolari eta eskultoreak euskal giroak eta gertaerak irudikatzen dituen bere lana aukeratu du Ostatuan jartzeko. Bi atalez osatua dago erakusketa: Arrue anaien erreproduzioak batetik, eta Erdi Aroko euskal jantzien koardroak, bestetik.

Astizko kobak S.M. enpresak, Mendukiloko leze turistikoan lan egiteko lan poltsa osatu eta udararako (ekaina-uztaila-abuztua) langile bat kontratatzeke deialdia luzatzen du.

Egitekoak: kobako bisita gidatuak, tiket salmenta eta taberna hartetzea.

Eskeintza: trebakuntza eta 3 hilabeterako jornada osoko kontratua. Jarraitzeko aukera.

Baloratua da: euskalduna, zonaldekoa, antzerako lanetan eskarmentua eta ingurumen heziketaren ezagutza.

Ezinbestekoak: B1 gida baimena eta autoa (kobara bertaratzeko)

Epea: C.V.-ak maiatzak 22 (astelehena) arte jasoko dira.

Nora bidali: Plazaolako Partzuergo Turistikoko egoitzan (Turismo bulegoan).

Plazaola 21, 31870 Lekunberri
mendukilo@mendukilo.com



Alokatzeko. Pisuak. Anoeta, Alegia, Amezketeta eta Lasarten.
Salgai (Tolosa), Pisuak Belate kalean. 75 m2.
Salgai (Tolosa), Pisuak San Frantzisko, 17. 140 m2. Garajea aukeran.
Salgai (Tolosa), Pisuak Laskorain kalean. 5.-a.
Salgai (Tolosa), Pisuak Larramendi kalean. 112 m2.
Salgai (Garajeak), Tolosako Leidorren eta Ibarran
943 65 17 13 / 677 46 09 16

TOLOSALDEKO
HITZA.INFO

Eztabaida. «Herriko jaiak ate joka dira. Zer da antolatzen duten egitarauen baitan gustuko duzuna? Eta zer da faltan botatzen duzuna eta antolatzea gustatuko litzaizukeena?». Sartu eskualdeko egunkariaren web orrian eta eman zure iritzia!

LEITZA ▶ KULTURA

Aurten motzago, baina biharko Pinta tailerrarekin hasiko da Kultur Astea

Bihar hasi eta datorren igandean XXVI. Eskulangintzako Erakusketarekin bukatu arte, agenda bete lan bada

ERREDAKZIOA

Bihar hasiko dute Kultur Astea Leitzan, zortzi eguneko egitarauaren atariko ekimena izanen den *Pinta eguna* deitu duten umeentzako tailerrarekin. Aurten 28.edizioa izanen duen kultur jardunaldien bilduma honek ohi baino laburrago joko du; izan ere, ez ditu-eta bere baitan bi asteburu izanen «asteburu bakarra izanen du Kultur Asteak, aurten Kultur taldeak dituen baliabide ekonomikoak oso murriztak dira eta ez zegoen aurrekontu biziago bati aurre egiteko gaitasun ekonomikorik», azaldu dute antolatzaileek.

Zentzu horretan adierazi dutenez, «asteburu batean Kultur Asteko ezaugarri den artisaunen erakusketa egiten den moduan, bestean beste ekitaldi indartsu bat ekartzetik ez dugu izan aurten. Hori faltako litzateke», iritzi diote.

Izarrik ez, baina osoa

«Baina *Pinta eguna* antolatatu duen guraso taldearen, Prebentzio Programako teknikariaren eta Atekabeltzako gazteek antolatatu ditzuten ekitaldiei eta talogileek borondatez egiten duten lanari eta herriko komertzio, lantoki, elkarte eta abarrek emandako ekarpen ekonomikoek esker, gainerako osagai guztiak baditu», baieztatu dute, eskerrak emateaz gain.

Horrela, umeek egun pare bat izanen dituzte haien artean. Biharko *Pinta eguna*, hasteko: «Aire librean, pintaketan ariko dira, eta arropa zaharrek inotzea komeni», zehaztu dute; eta



Umeentzako tailerrekin —iazko jokoetako irudia— ekinen diote. J. A.



lazko artisauaren erakusketan, zeramikazko lanparak. J. ASTIBIA

datorren ostiralean bestea, «zirkoko jokoak: malabarak, oreka-jokoak eta, egiten ikas-teko» aukera izanez.

Astelehena zehar, bestalde, ikusentzunezko hainbat saio dituzte egitekoak. Izuetak edota Olaizek eskainitakoak, «biak ere munduan zehar bidaiatuzaleak; edo tiro-poligonoz in-formazioa eskuratze aldera» egiten duten bideo emanaldia.

Mahai-inguruek eta hitzaldiek ere beren lekua dute, bestalde: «Emakumeen eskubide-

en karta, drogak, 18/98 auzia gaiak aztertuko dira, bakoitzean aditu eta zuzeneko lekuko direnen presentziarekin».

Asteburuan, berriz, larunbatean, gazteak izanen dira aktore nagusi, egun horren antolakuntzan Kultur Taldea eta gazteak elkarrekin aritu direla nabarmenduz. Horrela, «Ateka Beltzen berean egitekoa duten bideo-emanaldi eta hitzaldia-ekin hasi eta iluntze-gau parteko kalejira, afari eta kontzertuarekin egun polita» osatu

XXVIII. KULTUR ASTEA ▶ EGITARAUA

Aste osoan zehar, erakusketa desberdinak ikusgai egonen dira, Aurrera elkartearen eta udaletxean ere: jubilatuen eskulanak, pintura ikatarokoen koadroak eta *Drogen inguruan zer? gazteak nondik nora?* astegunez, 18:00etatik 20:00etara; igandean, 12:00etatik 14:00etara.

BIHAR

10:00. *Pinta eguna*, umeentzat eskulanak, plazan.

ETZI

20:00. Euskal Herriko Emakumeen Eskubideen Kartaren aurkezpena, Aurrera elkartearen mugimendu feministako kideen eskutik.

ASTEARTEA, MAIATZAK 23

20:00. *Drogen inguruan zer? gazteak nondik nora?* mahai-ingurua, Aurreran.

ASTEAZKENA, MAIATZAK 24

20:00etan. *Nairobiarraren bidaia* diapositiba emanaldia, zineman, Josu Izuetak eskainia.

OSTEGUNA, MAIATZAK 25

20:00etan. *Malawi bizikletaz* diapositiba emanaldia, zineman, Haitzol Olaizen eskutik.

OSTIRALA, MAIATZAK 26

15:00etan. Zirko tailerra,

duela iritzi diote. Biharamonean, berriz, 11:00etatik aurrera, artisaunen erakusketa egiten dute. Hogeita seigarren edizioa izanen du «Kultur Asteko ekin-tzarik jendetsuena» izan ohi den honek: «Euskal Herri oso-tik, 32 eskulangile etorriko dira, material guztiak lantzen dituztenak». Egun guztian ze-



Eskulanak ikusgai, iaz. J. A.

eskola atarian, Sebastopoleko Titiriteroen eskutik.

20:30ean. 18/98 auzia: *injustizia lege* hitzaldia, Aurreran, 18/98+ taldeko kideek emana.

LARUNBATA, MAIATZAK 27

18:00. *Gerra egosten den tokia* bideo emanaldia eta hitzaldia, Ateka Beltzen, KEM taldearen eskutik.

20:00etan. Batugara perkusio taldearekin kalejira. 21:30ean. Herri afaria, Karrapean.

IGANDEA, MAIATZAK 28

11:00etan. Leitzako XXVI. Eskulangintza Erakusketa, plazan, egun osoan. Trikitilariak eta taloak.

har ikusgai izanen omen da, talo postua ere jarriko dutelarik. Hasieran plazan egitekoa da; «eguraldiaren arioren pilotan lekuan egiten da», jakinarazi dute.

Astelehena zehar herriko jubilatuek eta pinturazaleek egindako koadroak ikusgai egonen dira udaletxean eta Aurreran.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK Telf.: 943 65 56 95
19:00ak arte hartzen dira tolosaldean@tolosaldekohitza.nfo

urteurrena ▶

Joseba Olazabal Caballero
Areson, 1979/XII/18 - 2005/VI/20
Lehenengo urteurrena

Sekula ahaztuko ez zaitugun zure sokatira taldeko lagunak

Areso sokatira taldea

ARESO, 2006ko maiatzaren 20a



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. Gerontologiko berriaren aldeko plataformak mahaiak jarriko ditu gaur goizean herriko 11 puntutan egungo egoera azaldu eta hilaren 27an deitu duten manifestazioari buruzko informazioa emateko.

Villabona. Tolosaldeko Gazte Eguna, Villabonako Gaztebean: 09:30ean, mendi martxa; 12:30ean, kafe tertulia; 14:30ean, gazte bazkaria; 16:30ean, jokoak; 19:00etan, kalejira; 20:00etan, Izatea eta Kudai taldeen kontzertua eta afaritxoak.

KULTUR ASTEAK

Albiztur. *Nora doa ero hori* helduentzako antzerkia. 20:00etan, Kultur Etxean.
Irura. Ikastolaren Eguna: 11:00etan, kalejira; 12:00etan eta 17:00etan, ikasleen emanaldia; 12:30ean, haur eta helduen arteko jolasak; 14:00etan, bazkaria; 17:30ean, erromeria Irrintzi taldearekin; 22:30ean, *Erreleboa* antzerki emanaldia, Trinketean.

MUSIKA

Tolosa. Manta Rey. 22:30ean, Bonberenean.
Zizurkil. Alann Bique taldearekin gau zeltiarra (musika eta antzerkia). 22:30ean, Intxaur frontoian. Maiatza Saltsan-eko egitarauaren baitan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Olarreaga, A. Korreo kalea, 2. 943 67 09 15.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)
10:30-13:00. *Hitzak* hegan magazina: kolaboratzaileak, Munduari leihoa, agenda...

Goiko irrattia (107.0 FM)
13:00. *Kornerra* magazina. Posta elektronikoa: kornerra@hotmail.com.

▶ **HITZAK** ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Txistulari gazteak, trebe

TOLOSA ▶ Hernaniko Txistulari Gazteen II. Txapelketan hirugarren saria lortu du Uzturre txistulari bandak

ERREDAKZIOA



Sarituak, ezker-eskuin: Zelaia, I. Azkue, Letamendia (irakaslea), A. Azkue eta Agirrezabala. HITZA

Tolosako txistulari gazteek beren maila erakutsi dute Hernanin jokaturako Txistulari Gazteen II. Txapelketan. Txapelketa honetan txistulari bakarlarri, txistulari talde edota txistulari bandek har zezaketen parte. Irungo, Hernaniko, Tafallako, Oiartzungo eta Gasteizko Musika Eskoletako ikasleekin batera lehiatu ziren ere Tolosako Eduardo Moko-roa musika eskolakoak.

Hain zuzen ere, hainbat ikasle ez osaturiko Uzturre txistulari banda bigarren modalitatean aurkeztu zen, eta hirugarren postua eskuratu zuen. Iñaki Letamendia irakasleak gidatutako taldea da saritua: Mikel Zelaia (atabalaria), Iñigo Azkue (1. txistua), Ander Azkue (silbotea) eta Maddi Agirrezabala (2. txistua). 1. eta 2. sariak Irungo Txingudi Bandarentzat eta Tafallako Musika Eskolakoentzat izan ziren.

«Aipagarria da txapelketa hau 12tik 17 urterako bitarteko gazteentzat zela, eta Tolosako bandako partaideetatik inork ez zituela 13 urte baino gehiago», azaldu dute. emaitzarekin pozik, Musika Eskolako ordezkariak.

AGURRAK ▶



ZORIONAK
Timotea Larreta (Ibarra). Beti bezain maitekorra izaten jarraitu, denontzat berezia zara eta. Familiaren partetik.



URTE ASKOAN
Karmen (Belauntza). Zorionak eta muxu bat ebekoen partetik, bereziki Xabi, Haritz eta Aneren partetik.



ZORIONAK, KARMEN
Egun on bat opa dizu bihotz-bihotzez asko maite zaituen lagunak. Muxu bat.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza
TOLOSAN
Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza
LEITZAN
Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tarte

Urtebetetzeak,
urrezko etzeiak,
ezkartzak, jaioberriak...

jantzi hitza ren jertseak

HITZAren egoitzetan salgai